



Ekintza soltetatik planteamendu
integral eta komunitarioetara.
Laburpena

Arautu gabe

- Eskolaz kanpoko ekintzak guraso-elkarteen eskuetan uzten dira, baina guraso elkarteek ezin dute.
- Paradoxa bat: eskola barrukoa oso arautua dago, baina arau gutxi dago arlo lektibotik kanpo. Hezkuntza legearen garapenean litekeena da hortik urratsak ematea. .



Saretu beharra

- Saretu beharra dago, koordinatu beharra.
- Helburuetan bat gatoz: euskara, inklusioa, aisialdi hezitzailea.
- Hiru zutabe: hezkuntza-komunitatea + gizarte eragileak + administrazioa. Osagarriak izan behar dira.
- Herri / hiri hezitzailearen markoa.



Segregazioa



- Eskolaz kanpokoak ere segregazio-iturri dira.
- Normalak ez diren gauzak normalizatu ditugu. Ikasle batzuek 10 ekintzetan parte hartzen dute, beste batzuek 0 ekintzetan.

Familiei azaldu

- Ez da soilik diru kontua (hori ere bai).
- Bitartekoekin batera, familiei azaldu behar zaie eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzea ze garrantzitsua den... Eskolako arrakastan eragina dute, baita sozializazioan ere (gizarte-kohesioa).



Irakasleak, hezitzaileak...

- Haur-gazteekin harremanetan dauden pertsonen garrantzia funtsezkoa da: irakasleak, tutoreak, aholkulariak, hezitzaileak, entrenatzaileak...

